

# ***Ingurumen Buletin***

## ***berezia***

### ***1. atala***

***'Gutxiagorekin ongi bizitzea: Justizia-  
irizpideekin muga fisikoetara egokitzea'***

Urtarrileko azken buletinean azaldu genituen ELAren 13. kongresuan onartu ziren hurrengo hilabeteetarako ingurumen atalak izango dituen lan ildoak. Horietan garrantzitsuena etorkizunean gauzatu beharko den ekonomiaren trantsizio ekologiko eta soziala zen. Buletin berezi honetan orain arte lan esparru horretan eginikoa azaldu nahi dizuegu. Lehen atal honetan aldaketaren beharra eta trantsizioak izan behar dituen ezaugarriak zehazten dira:

***'Gutxiagorekin ongi bizi: Justizia-irizpideekin muga fisikoetara egokitzea'***

### **1. KRISI GLOBALA**

Industria Iraultza iritsi arte, gizon-emakumeak, naturak emandako baliabideetatik eta ingurune hurbilenean aurkitzen zituzten materialetatik bizi ziren. Naturaren jardunetik aldentzen hasi ginen jatorri fosila zuen energia erabiltzen hastean, ekoizpenak azkarrago egiteko. Erregai fosilek makinak hornitzeko aukera eman zuten, eta gizakiak mineralak eta erregaiak erauzi zituen bestelako makinak elikatzeke; horrela hasi zen egungo zibilizazioa osatu duen hazkundegurpila.

#### **Krisi ekologikoa**

Egungo sistema ekonomikoak eta

bertan bizi garenok oraindik ere bizkarra ematen diogu errealitate honi. Honen ondorioz, makina bat gertakari jazotzen dira eta denek dute elkarren arteko lotura. Ondoriorik zabalduena klima-aldaketa da. Gaur egun, gas-metaketak izugarri handitu dira hainbat arrazoi direla medio: erregai fosilak erretzea, hainbat industri jarduera eta basoak desagertzea. Baina emisioak nabarmen murrizteko, sakon aldatu beharko dira ekoizpen-, kontsumo-, merkataritza- eta mugikortasun-ereduak; planetako eskualderik aberatsenetan, batez ere.

Natur baliabideen agortzeari dagokionez "petrolioaren goi-muga" aurkitzen gara. Gainbeheraren muga ikusita, petrolio-enpresak ere hasi dira energia-iturri alternatiboak aztertzen eta abian jartzen, gora doan energia-kontsumoari eutsi ahal izateko; adibidez, eguzki-energiari, energia eolikoari edo biomasaren energiari heldu diote. Petrolio merkeak makinak mugitzeko balio izan du, automozio-ibilgailuak bultzatzeko, elektrizitatea sortzeko. Petrolioari esker, jendeak bizilekutik dozenaka kilometrora lan egiten du eta oso urrun lantzen diren produktu merkeak jaten ditu. Petrolio, gainera, ezinbestekoa da nekazaritza intentsiboan, eta nekazaritzarako intsumoak

ekoizteko, arropa, etxeak, altzariak, errepideak, ontziak... egiteko. Petrolioza eraikitako munduan bizi gara, eta hura agortzeak ezinbestean behartzen gaitu bizi-eredu osoa bestela antolatuzera.

Beste natur baliabide batzuk ere izugarrizko abiaduran kontsumitzen ditugu. Dagoeneko agerikoa da beste baliabide batzuen eskasia; adibidez, ur geza, basoak, arrantza, lurzoru emankorrak, basa fauna edota koralezko arrezifeak.

Aldaketa globalari bestelako gauzek dakarten zalantza handia erantsi behar zaio. Hauek dira: industria nuklearra ugaritzea, genetikoki aldatuak dauden organismoak askatzea (haien efektuak ezin daitezke aurreikusi) eta bioteknologia eta nanoteknologia arloko esperimenduak egitea, eta ez dakigu, egia esan, zer ondorio sortuko duten.

### Gizarte-krisia

Hazkunde etengabearen oinarritutako sistema ekonomikoa ez da herritar gehienek bizitza-premiak asetzeko gai izan. Mundua polarizatua dago: alde batean, Ipar aberats eta kontsumista dago, eta, bestean, aldiz, oinarritzko baliabideak eskuratzeko zailtasunak dituen Hego pobretua. Munduko biztanleriaren seirenak eskura dauden

baliabideen % 80 kontsumitzen du (batez ere, herrialde aberastuetan bizi den jendea da); aldiz, gainerako bost seirenek baliabideen gainerako % 20 kontsumitzen dute.

Hegoko herri askok bizilekutzat izan dituzten lurraldeak hondatu egin dira, bai eta herri horien oinarritzko baldintzak ere; horren ondorioz, jendeak bere lurraldeetatik alde egin behar izan du, eta horrek inoiz ez bezalako migrazio-mugimenduak eragin ditu. Pobrezia-burtsak gero eta handiagoak dira; milioika lagunek ez dute lanik, eta beste askok ez dute etxebizitzarik.

Egungo ekonomia- eta finantza-krisiak, gainera, desberdintasunak ederki areagotu ditu. Gobernu askok abiarazi dituzten doikuntza politikak pertsonen aberastasuna kapital handien eskuetan uzteko bitartekoak dira. Langabeziaren, gizarte-murrizketen eta zerbitzu publikoak ezabatzearen ondorioz, jendea oso ahul gelditzen da.

Krisiak gogorrago jo ditu planetako toki askotan biziraupena bermatzen duten lanez arduratzen diren emakumeak. Pobreziaren feminizazioaz mintzo gaitzke. Zailtasun handiagoak dituzte oinarritzko baliabideak eskuratzeko; hazkuntza-eta zainketa-lanak zailtasun handiagoz egin behar izaten dituzte; beren gorputzetan gerren

indarkeria sufritzen dute, eta gainera, pobreziaren egiturazko indarkeria sufritzen dute beren bizitzetan, bai eta lan- eta sexu-esplotazioa ere.

Hazkunde-gizarteak gezurrezko ongizate bat sortzen du. Hazkunde ekonomikoa ongizatearekin eta bizikalitatearekin parekatzen da, eta aberastasunaren adierazle nagusiaren bidez neurtzen da; Barne Produktu Gordinaren bidez (BPG), alegia. Natur eta giza hondamenik larrienak ez dira BPGren zenbakietan kontuan hartu. Adierazle hori itsu dago gerrek, gaixotasunek eta trafiko motorduna hazteak dakarten sunsiketarekiko.

#### Zainketen krisia

Taldearen ugalketa, biziraupena eta premiak asetzeraren bideratzen diren lanak dira zainketa-lanak. Egungo gizartean, gehienbat, holako lanez emakumeak arduratzen dira. Zainketen krisia gizarte-krisiaren atal oso garrantzitsua da.

Hainbat faktorek batera jardun izanak ekarri du zainketen krisia. Faktore horien artean, hauxe da nabarmentzekoa: emakumea lan ordainduan sartu izana sistema patriarkal baten baitan. Horren ondorioz, etxeke lanak iraganeko lotura bat

dira, eta hartatik, ahalik eta lasterren ihes egin beharra dago. Dena dela, lan horiek ezin dira egin gabe utzi eta, emakumea enpleguaren arlo publikora igaro bada ere, zainketa-lanak ez dira gizonekin banatu. Gizon gehienak zeregin horiez arduratzen ez direnez, azkenean emakumeek bi lanaldi hartzen dituzte bizkar gain.

Lan-prekarietatea eta langabeziaren mehatxuak eraginda, gainera, enpresak inposatzen dituen erritmo eta ordutegietara egokitu beharra dago. Elkarri laguntzeko gizarte-sare asko galdu izanak beharturik, nork bere eguneroko kontuak bere kasa moldatzen ditu, eta horrek bestelako zailtasunak dakartza. Zainketen krisia bereziki larria da, kontuan hartzen badugu gero eta gehiago desegiten eta pribatizatzen ari direla arazo horietako batzuk arintzen saiatzen ziren gizarte-zerbitzuak.

Era askotakoak izan dira egoera horri erantzuteko saiakerak. Etxeetan, esaterako, pertsonen premiei harrera egitearen kontua gehienetan gizonek parte hartu gabe berrantolatzen da. Beren klase-izaera dela eta, emakume batzuk gauza dira familia-guneak eskatzen dituen lanen zati bat ordaintzeko eta merkatuan zerbitzuak erosten dituzte; beste emakume batzuek beren lan-

indarra saltzen dute lan horiek egiteko; gehienetan prekariedade handian eta gizarte-eskubiderik gabe. Berezi nabarmentzekoa da emakume etorkinek zainketa-lanetan betetzen duten eginkizuna.

## **2. EZER EZIN DA MUGARIK GABE HAZI PLANETA MUGADUNEAN**

Planetaren materialak mugatuak dira eta materialak ez daitezke mugarik gabe erabili. Jarduera guztiek sortzen dituzten hondakinak desegiteko ere mugak daude. Baliabide berriztagarriak, aldiz, ez daude kantitatez mugatuak, erabilera zuhurra bada, eta baliabide berriztagarrien birsortze-erritmoak errespetatzen badira.

Sistema ekonomikoa biosferaren sistemaren baitan dago; ukaezina da sistemak materialak eta energia behar dituela, eta hondakinak sortzen dituela; beraz, sistemak ez dezake inola ere hazkunde mugagabea oinarri izan. Hazkundeak erritmo honetan jarraitzen badu, gurea bezalako bi planeta beharko direla 2030. urterako.

Gero eta energia-fluxu eta material gehiago behar ditugu, neurrigabeko ekoizpen- eta kontsumo-erritmoari eusteko. Gure ekonomia-eredua gauza izan da industria-garapen izugarria eta salgai ugari sortzeko;

baina arriskuan jarri du gizateriaren etorkizuna eta munduko toki askotan miseria gorria sortu du.

Helburu nagusia diru-hazkundera da, baina horren atzean ezkutaturik dagoen logika ez da jende gehienaren bizi-premiak asetzeko gauza, natura betirako kaltetzen du, natur baliabideak agortu eta hondatzen ditu, indarkeria eta segurtasunik eza eragiten ditu, komunitateen arteko harremanak zailtzen ditu, jakintza tradizionalik iraunkorrenak suntsitzen ditu, ugalketa soziala ahalbidetzen duen zainketa-sistema hausten du, eta aberastasunari eta ongizateari buruzko kontzeptu bakarra eraiki du; hots, dirua metatzea. Eredu horretatik ateratzen ez garen bitartean, ez da modurik egongo ekonomia, iraunkortasuna eta zuzentasuna bateragarri izateko. Ekonomiaren tamaina murriztera behartuko gaituzte bai mineralen eta petrolioaren agortzeak. Gizateria, nolana ere, behartua egongo da bestela bizitzera eta horretara moldatu beharko du. Bi bide daude egokitzen hori egiteko: gero eta gutxiago izango diren baliabideen aldeko borroka basatia, edo zuzentasunean oinarritutako berregokitze tinko bat lehenbailehen egitea.

**3. HAZKUNDETIK LIBRATU BEHARRA DAGO:**  
**GUTXIAGO, HOBEKI BIZITZEKO**

Tranpa batek harrapaturik gabilta. Gure sistema ekonomikoa hazten bada, natur sistemak txikitzen ditu eta gizartean sekulako desberdintasunak sortzeaz gain, gizakien etorkizuna ere arriskuan jartzen du; baina hazten ez bada, gizartea desegituratu eta gizarte-gatazka izugarriak sortzen ditu; horren ondorioz, sufrimendu latza eragiten du. Logika gaizto horretatik atera beharra dago.

**Ongi bizitzea, askoz ere gutxiagorekin:**  
**nahikotasun-printzipioa**

Biosferaren mugetara egokitutako ekonomia batean, energia fosilak desagertzerako jo beharko du. Energia nuklearra baztertzeko badugu, arriskutsua delako, koste handiak dituelako eta baliabide berriztaezin batean oinarritua dagoelako, energia berriztagarriak bakarrik gelditzen zaizkigu; hau da, eguzki-energia, eolikoa eta, hein txiki batean, biomasarena eta hidraulikoa. Izan ere, azken bi baliabide horiek nahitaez modu mugatuan erabili beharko dira, energia ekoizteaz bestelako erabilerekin partekatu behar direlako; elikadurarekin, alegia.

Energia berriztagarri garbiak etorkizuneko energia-iturri egiazkoak dira; baina ez gizarte industrialak ohituta dauden

erabilera moldeetarako, eta are gutxiago, hazkundearen dinamika batean. Berriztagarriekin bizi gaitzke, baina bizimodua asko erraztuta. Ez da behar adina energia berriztagarri garbirik, autoan oinarritutako mugikortasun masiborako, oporrak urtero beste kontinente batean pasatzeko, edota urtean 50 egunez soilik erabiltzen ditugun bigarren etxebizitzak izateko. Beste mineral batzuen erauzketa ere murriztu beharra dago, mineral-erauzketa horiek ere goia jotzeko zorian baitaude, eta ondasun berriztagarri batzuen erauzketa ere (ura, kasu) murriztu behar da, urriak baitira.

Eta agintariek oraindik ere gauzak neurrigabe kontsumitzera bultzatzen dute jendea! Edozer gauza kontsumitu behar izateari kateatuak gaude, indarrean dagoen ekonomia-eredu izugarri zentzugabe honek lurra jo ez dezan. Kontua ez da eskaintzak pertsonen desioei erantzutea, baizik eta kontsumo maila arrazoigarria zein den jakitea, eta eskaria kudeatzea, fisikoki posible denarekin bat etor dadin.

**Bizia mantentzearekin lotutako ekoizpena; ez, ordea, haren suntsiketarekin lotutakoa**

Balioa diruari bakarrik ematearekin batera, gauza asko ezkutuan gelditzen dira sistema ekonomikoaren begietan.

Arrazoitzeko molde horrekin bat, ekonomiaren helburua ekoizpenak handitzea da, eta ez du batere axolarik ekoizpenen izaerak; horrela, jendearentzako eta ingurumenarentzako kaltegarriak diren jardueren hazkundera ospatzen da eta ugalketa sozialerako behar diren lan-denborak ikusezin bihurtzen dituzte.

Ekoizpena bizi-baldintzak mantentzearekin lotuta egongo bada, beharrezkoa zaigu oinarrizko galdera batzuk egitea, ekonomia feministak proposatzen duen bezalaxe: Zer premia ase behar dira? Zer ekoiztu behar da, premia haiek zuzentasunez asetzeko? Iraunkortasunaren ikuspuntutik, jende guztiaren bizitza mantentzea ahalbidetzen duten premiak asetzeko prozesua izan behar du. Helburu horrekin ez dator bat irabazi-asmoari lehentasuna ematea. Etekina ez dator bat giza garapenarekin.

#### Aldaketa sakona lan-ereduan

Premiak asetzeko zer ekoiztu jakindakoan, zehaztu beharra dago zer lan diren gizartean beharrezkoak ekoizpen horri begira. Planetaren mugetara egokituko bagara, hondamenera garamatzaten jarduerasektoreak murriztu eta birmoldatu beharko ditugu, eta beste sektore batzuk bultzatu;

hain zuzen ere, ekosistemak zaintzearekin eta ugalketa sozialarekin beharrezkoak eta bateragarriak diren sektoreak.

Bizimodu askoz ere soilago baterantz jo beharra dagoela esaterakoan, oztopo handi bat ateratzen da beti hizpidera; enplegua, alegia. Begi-bistakoa da egungo ekonomia-eredua atzeraldian sartzen denean, azkenean langileak kaleratzen dituztela. Jarduera batzuk, ordea, murriztu beharra dago, eta lanpostuei eustea ezin daiteke printzipio bakarra izan, ekoizpen-ehunean zer aldaketa egin baloratzerakoan. Lan batzuk, esaterako, ez dira sozialki desiragarriak; armak fabrikatzea, zentral nuklearrak edota finantzen eta higiezinaren burbuilen inguruan sortu diren enpleguak, adibidez. Lan horietan diharduten pertsonak, ordea, beharrezkoak dira; beraz, sektore jakin batzuk desagertzearekin batera, berregituraketa-plan bat egin beharko litzateke, eta gizarte-estaldura publiko handiak beharko lirateke, langileen ongizatea babesteko.

Oinarrizko zerbitzuen kalitatezko sare publikoan pertsonak behar dira: hezkuntza; osasuna; adinekoak, gaixoak edota dibertsitate funtzionaleko pertsonak zaintzea. Era berean, zaharberritze- eta konponketa-lanek, energia berriztagarrien eta nekazaritza

ekologikoaren inguruko lanek enplegua sor dezakete; oro har, iraunkortasunarekin zerikusia duten lan guztiek giza ahalegina behar dute.

Lanaldia murrizteak eta behar diren lan-denbora guztiak (lan ordaindua eta etxeko lanak) banatzeak bestelako gizartea egitura lezakete. Alde batetik, arrazoizkoa dirudi lan ordaindua banatzeak eta lanaldia murrizteak, noiz eta izugarritzko langabezia dagoen honetan; gainera, zenbatzen ez den lan guztia ere badago, bizitzarako behar-beharrezkoa dena, eta hori ere banatu beharra dago.

Krisiak bazterrak ederki jo dituen honetan, ez da zentzugabea enpresei etekinei ez eustea edota etekinak ez handitzea proposatzea. Orain, etekin-jaitzierak zuzeneko ondorioa dakar soldatapeko langileen lanpostuetan; baina, etekin-jaitzierak bonusen gainean izan lezake ondorioa, bai eta akziodunei ematen zaizkien dibidenduen gainean ere, edota soldata batzuen gainean; izan ere, horiek guztiak ederki jaitsi litezke, inola ere arriskuan jarri gabe holako soldatak jasotzen dituztenen bizitza.

*Kolektibotasuna berreraikitzea, lankidetzaren sustatzea*

Estrategia kolektiboak egituratu beharra eta elkarlanean aritu beharra

daukagu. Zainketa-lanetan gizonak eta emakumeek ardura oso desberdinak hartzen dituzten gisan, merkatu-ekonomiaren esparruan desberdintasun sakonak ere badaude. Emakumeen eta gizonen artean, oso desberdina da lanean sartzea, eta oso desberdinak batzuen eta besteen lan-baldintzak, emakumeen kalterako noski.

Kontsumo-gizarte modernoek indibidualismoa, eta lanean eta gizartean lehiakortasuna sustatzea dute ezaugarri. Azken finean, kontsumismoa berez da helburua, eta jendearen bizitzaren xede ere bihurtzen da, eta kontsumismoan oinarritzen da gizartean arrakasta eta aitortza lortzea. Alternatiba komunitario asko kolektibotasuna berrasmatzen saiatzen dira: esate baterako, eko-herrixkak antolatzeko proiektuak; trantsiziozko hiriak; nekazariak eta indigenek elikadura-burujabetasunaren alde abian jarritako mugimenduak; produktu ekologikoen kontsumo taldeak; tokiko moneta; edo denbora bankuak. Oro har, elkarren arteko laguntza, auzo-harremanak eta erkidegoa ukitzen duten erabakietan parte hartzea sustatzen duten ekimenak.

Ekoizpen soziala hauek askoz ere materia eta energia kantitate txikiagoak erabiltzen dute ekoizpen materialak baino.



Baliabide oso gutxi erabiltzen ditu, eta, horren ondorioz, balio eta ongizate maila altuak lortzen dira. Bestalde, giza jarduera du oinarri, eta ez dago teknologiarekin ordezkaterik, industria tradizionaletan gertatzen den bezala.

#### *Aberastasuna banatzea eta berdintasuna*

Beti esan izan da banaketa ekoizpena hazteari dagoela lotua. Baina hazkondeak kontra egiten die naturaren oinarriko legeei. Ongizatea, beraz, banaketaren kontu politikoari lotzen zaio, berriz ere.

Premiazkoa da hainbat proposamen aztertzea; esaterako, herritarrentzako oinarriko errenta eta soldata osagarriak jartzea. Era berean, interesgarria litzateke gehieneko errenta bat ezartzeko aukera. Gaizki ordaindutako enplegu prekario asko dauden bezala, badira soldata garbia jaitsita ere, bizi-baldintzetan batere galerarik izango ez luketen pertsonak.

Metaketa mugatze aldera eta desberdintasunak murrizte aldera, funtsezkoa da egun indarrean dagoen nazioarteko diru-sistema aldatzea finantzen hedapen globalizatua mugatuko dituzten erregulazioak ezartzeko: bankuen dimentsioa erregulatzeko, bankuen jarduera kontrolatzeko, finantza-

dirua eta banku-dirua sortzeko aukerak mugatzeko, eta zerga-paradisuak ezabatzeko, oligarkek beren ondarea eta negozioak kanpora eramateko eta estatu-legeetatik kanpo uzteko aukerarik izan ez dezaten.

Aberastasuna berdintasunez banatuko bada, zerbitzu publiko sendoekin batera, fiskalitate progresiboa behar da, eta gastu publikoa lehentasunez ongizaterantz bideratu behar da: osasuna, hezkuntza, herritarrak babestu eta zaintzea. Azken finean, kontua da egun indarrean dauden irizpideen ordeztelako arrazionaltasun ekonomiko bat erabiltzea, bizitza mantentzea ahalbidetzen duten gizarte eta ingurumen arloko eskakizunei lotutakoa.

**Ez dago pentsatzerik gizartearen eta ingurumenaren kolapsoa lagungarri izango zaigunik. Mugimendu bat egituratzeko gauza ez bagara, are txarragoa izan daiteke kapitalismo honen atzetik etor daitekeena. Gizakia lankidetzari eta elkarrekiko laguntzari esker bilakatu zen horrenbestez, elkarren arteko eraikuntzan eta akordioetan oinarrituta bakarrik lortuko dugu aldaketak eragiteko behar besteko indarra.**